

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN GELDIALDIARI BURUZ

EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako 2017-2021 Hitzarmeneko indarraldia abenduaren 31n amaitu bazen ere, hitzarmena automatikoki luzatzen da 2022ko Hitzarmena indarrean sartu arte, hau da, ultraaktibitatearekin mantentzen dira hitzarmenean jasotako lan-baldintza guztiak sektoreko langileontzat.

Indarraldi hori amaitu zen eta patronalek ez zuten mahai gainean jarri hitzarmenean konpromisoa hartu zuten bi elementuren inguruko akordioa ahalbidetu zezakeen edukirik: 2021eko lansariak eta Lanbide Heziketaren erregularizazioa.

2022ko Hitzarmenaren negoziazioa errealitate bat da jada, eta joan den abenduaren 14an egin zen lehenengo negoziazio mahaia. Hala ere, hainbat arazorengatik ezin dugu balorazio positiborik egin bilerak emandakoaren inguruan.

Kristau Eskola eta Aice-Izea patronalek berriro monopolizatu zuten patronalen ordezkariak, egia bada ere, Ikasgiltza eta EBI Elizabarrutiako Ikastetxeak, deituta egonda, ez zirela agertu ere egin, negoziazio-prosezuan parte hartzeko borondate eskasa adieraziz.

STEILASetik behar bezala aurkeztu genuen sektoreko sindikatuen ordezkariaren gure % 17a, baina beste sindikatu batzuen arteko desadostasunak zirela eta, mahaia atzeratu behar izan zen, gaur egun datarik gabe, beharrezko datuak biltzeko.

Ez zen edukien inguruko negoziazorik izan. STEILASen gure esku dagoen guztia egiten ari gara negoziazioa bultzatzeko, kezkatuta baikaude 2010ean "ez negoziazio" dinamikan ez erortzeko. Are gehiago, 2017-2021 Hitzarmenetik Lanbide Heziketako erregulazioa negoziatu gabe dagoenean eta langileoi aplikatzen diguten soldata-eta taulak 2020koak direnean, langileontzat eros ahalmenaren etengabeko galera kontuan hartuta. Aintzat hartu behar dugu KPIa % 6,4 igo zela EAEn 2021ean, baina gure lansariak izoztuta daude oraindik.

Gauzak horrela, eta Hitzarmenaren beste hainbat puntu ere negoziatzea funtsezkoa delakoan, STEILASetik eskatzen dugu negoziazioei berriro ekiteko eta Kristau Eskolari eta gainontzeko Patronalei immobilismotik aldentzeko, akordioak ahalbideratuko lituzketen edukiak mahaigaineratuz.

Jakinaren gainean izango zaitugu!

Irakaskuntzan, STEILAS

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus